

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko otsailaren 28ko erabakia, Kontratazio Mahaiko ordezko lehendakari berria izendatzeari buruzkoa

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 326. artikulua xedatzen duenaren arabera, kontratazio-mahaiaren berezko zeregina da kontratazio-organoari laguntzea kontratuak esleitzen, prozedura irekietan, ireki laburtuetan, murriztuetan, lehia-elkarriketaren bidezkoetan, berrikuntzarako elkartetan eta lege horretako 168. artikuluan aipatzen diren publikitadedun prozedura negoziatuetan. Orobat xedatzen du hauek osatuko dutela mahaia: lehendakariak, kideak (erregelamendu bidez zehaztuko da zenbat izango diren) eta idazkari batek, eta kontratazio-organoak izendatuko dituela mahaikideak.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 127. artikulua —Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen 57/2003 Legean emandako idazkuntzan— Tokiko Gobernu Batzarrari aitortzen dizkio kontratazio-eskumenak. Beraz, hori da kontratazio-organoa, artikulua beraren 2. paragrafoaren arabera eskumen horiek eskuordetzeko aukera gorabehera.

Biztanle kopuru handia duten udalerrietan Tokiko Gobernu Batzarrak ditu kontratazioaren alorreko eskumenak, kontratuaren zenbatekoa edo iraupena edozein izanik ere, Sektore Publiko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriak —“Toki-erakundeetarako kontratazio arau bereziak”— 4. paragrafoan xedatutakoaren ildotik. 7. paragrafoaren arabera, berriz, kontratazio-mahaiko buru korporazioko kide bat edo funtzionario bat izango da; mahaikide izango dira korporazioko idazkaria edo, hala behar duenean, korporazioari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularrak, eta kontu-hartzailea, baita kontratazio-organoak izendatutako beste batzuk ere, funtzionarioen, lan-kontratuko langileen edo zinegotzien artean aukeratuta; kopurua, guztira, ez da hirutik beherakoa izango. Kontratazio mahaian dauden hautetsiak ezingo dira kide guztien herena baino gehiago izan. Mahaia idazkaria korporazioko funtzionario bat izango da.

Kasu honetan, beste pertsona bat izendatu beharra dago, Kontratazio Mahaiko ordezko lehendakariaren zereginak egin ditzan, orain artean ordezko lehendakari izan den Borja Rodríguez Ramajoren lekuan.

Mahaia gainerako osaera —titularrei nahiz ordezkoei dagokienez— bere horretan geratzen da.

Horrenbestez, erabaki-proposamen hau egiten dio alkate lehendakariak Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena. Igor Salazar Ochoa Kontratazio Mahaiko ordezko lehendakari izendatzea, Borja Rodríguez Ramajoren lekuan, mahaia gainerako osaera —titularrei nahiz ordezkoei dagokienez— bere horretan utziz.

Bigarrena. Erabaki hau hartu den egunean bertan jarriko da indarrean, ALHAOn eta Udalaren webgunean zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko martxoaren 2an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE